

Gizarte ekonomiako enpresek, sendoagoak direnez, errazago lortzen dute finantzazioa hainbat adituren aburuz

Ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzeko tresnei buruzko mugaz gaindiko lehenengo topaketa egin zen ekainaren 15 eta 16an, Nafarroan, TESS sareak antolatuta. Jardunaldien helburuetako bat zen Euskadin, Nafarroan eta Akitanian eskuragarri dauden finantza-erramintak ezagutaraztea, eta baita baliabideak eta esperientziak partekatzeke aukerak aztertzea ere.



## ... gainera

### LAKUAK GIZARTE EKONOMIA BULTZATZEKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaien sailaren bitartez, gizarte ekonomia bultzatzeko hainbat laguntza onartu ditu. Ekainaren 24eko EHAAn argitaratu ziren.

### GIZARTE EKONOMIAK BPG-REN %10 SORTU DU 2010EAN

Gizarte ekonomiak Estatuko barne-produktu gordinaren (BPG) %10 sortzen du. Enpresei buruzko informazio zerbitzuak eskaintzen dituen Axesor konpainiak egindako 'Dimensión, localización y riesgos asociados al Tercer Sector' azterketan, honako datu hauek nabarmentzen dira: 2010 urtean sektoreak 2,5 milioi pertsoneri lan eman zien; 2007-2010 artean %2 lanpostu gehiago sortu zituen, eta merkataritza-sozietateek, aldiz, %15,7 lanpostu desagerrarazi behar izan zituzten.

### EKONOMIA BIRPENTSATZEKO BEHARRARI BURUZKO MINTEGIA ANTOLATU DU REAS EUSKADIK

Bestgarren urtez, UPV/EHUk antolatzen duen 'Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura Udako Ikastaroak' programaren barruan, REAS Euskadik, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate-Eskolak eta Hegoa Institutuak, '[Ekonomia berri pentsatu: beste ongizate baterako kontzeptu eta praktika berriak](#)' izeneko mintegia prestatu dute. Jardunaldiak gaur eta bihar, uztailak 1, artean izango da, 9etatik 14etara, Eutokia Gizarte Berrikuntza Zentroan (Boluetabarri).

### GOOGLE-EK GIZA GARAPEN INDIZEA IKUSGAI JARTZEKO TRESNA SORTU DU

Google-ek munduko herrialde guztietako Giza Garapen Indizearen emaitzak ikusgai jartzeko tresna sortu du. [Public Data Explorer](#) izeneko sistema berri horrek 100 garapen adierazle bakoitza gehiago ditu. Gainera, nazioarteko estatistika anitz ezagutu ditzakete erabiltzaileek, eta horiek

#### INFORMAZIO +



### Langileek enpresan parte hartzearen aldeko akordioa sinatu dute Gipuzkoako hainbat eragile ekonomikok

Hemeretzi erakunde eta enpresak -horien artean, ASLE, Mondragon taldea eta Gipuzkoako Ganbera- langileei enpresetan parte-hartze handiagoa ematearen aldeko manifestua sinatu dute hil honetan.

#### INFORMAZIO +

### Fiarek 800.000 euroko kapital soziala bildu du jada EAEn

Inbertsio eta Aurrezki Erantzulea Fundazioak (Fiare) Euskadiko bazkideen bigarren bilera egin zuen hilabete hasieran Gasteizen. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 130 bazkide baino gehiago bildu ziren, baita fundazioko eta Fiare proiektuko kideak ere. Egungo egoera aztertu eta proiektuak etorkizunean gaingitu beharko dituen erronkak komentatu zituzten.



#### INFORMAZIO +



### Fagor Ederlanek lantegi bat irekiko du Txinan

Automozioaren sektorerako osagaiak fabrikatzen dituen kooperatiba honek 30 milioi euro inbertitutako fabrika berria irekiko du Txinan. 2012 urtean jarriko dute martxan Shangaitik gertu dagoen Kunshan industrialdean.

#### INFORMAZIO +

Bidezko merkataritzaren onuradunen aurpegiak erakusten ditu Setemek bultzatutako webgune berriak

Setem GKEak [www.ponlecaraalcomerciojusto.org](http://www.ponlecaraalcomerciojusto.org) webgune berria abian jarri du bidezko merkataritzaz onuratzaren Hegoaldeko pertsonen aurpegiak Iparraldeko erabiltzaileei hurbiltzeko asmoz.

INFORMAZIO +



## Facecoop sortu dute, lehenengo sare sozial solidarioa

Kooperazioaren eta elkartasunaren sektoreentzat erreferentziako sare sozial bilakatzeko helburuarekin jaio da Facecoop, eta Hirugarren Sektoreari zuzendua dago bereziki. Plataforma horrek harremanetan jartzen ditu pertsonak, instituzioak eta erakundeak, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatzearren, ingurumena zaintzearren eta pobreziaaren aurka borrokatzearen aldeko interesa dutenak.



INFORMAZIO +

## Javier Goienetxea Konfekoopeko presidente berri izendatu dute

Euskadiko Kooperatiben Konfederakuntzako arduradun berria aukeratu zuten iragan ekainaren 10ean, eta jada aurkeztu du bere burua entitateko bazkideen aurrean. Patxi Ormazabalena ordezkariak ibilbide luzea egin du kooperatiben munduan, 25 urte baino gehiago lan egin baitu Mondragon taldeko hainbat enpresatan.

INFORMAZIO +



## BBVAK eta ESADEK hamar gizarte ekintzaitza proiektu lagunduko dituzte 'Momentum Project' ekimenaren bidez

Aukeratutako proiektuek helburutzat dituzte buruko gaixotasunak dituzten pertsonak, ezgaitasunak dituztenak eta emakume helduak edo txarrak jaso dituztenak gizarteratzen laguntzea eta ingurumen jasangarritasuna sustatzea, besteak beste.



INFORMAZIO +

Beste **behatoki** batzuen buletinak


grafiko bilakatzeko eta beste datu multzo batzuekin alderatzeko aukera daukate.

## UZTAILAREN 2AN OSPATUKO DA KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

Kooperatiben Nazioarteko Egunak bat egingo du Nazio Batuen Gazteriarren Nazioarteko Egunarekin. Hortaz, uztailaren 2an, kooperatiben munduko aktoreek gazteen parte-hartzea bultzatzea deitzen aldarrikatuko da mundu osoan zehar. Zentzu horretan, Kooperatiben Nazioarteko Urterako (2012), gazte guztiei irekia dagoen sormenezko lehiaketa antolatzen ari da (Coop'Art) Nazioarteko Kooperatiba Aliantza, sektore horretako baloreak eta printzipioak zabaltzeko.

## ZABALIK DAGO VALENTZIAKO UNIBERTSITATEKO GIZARTE EKONOMIA DOKTOREGOAN MATRIKULATZEKO EPEA

Universitat de València-k Gizarte Ekonomiari buruzko Doktoregoan aurrez izen emateko epea ireki du. Programa hori unibertsitate horren IUDESCOOP Gizarte Ekonomiaren eta Kooperatiben Unibertsitate Institutuak antolatu du eta irailera arte egongo da aurrez matrikulatzeko aukera.



### Uztailak 4

'Europako Kooperatiben eta Mutualitateen Satelite Kontuak' mintegia. INE, Madril. [Informazio+](#)

### Irailak 7-9

VI. RULESCOOP kongresua: "Ekonomia Sozial eta Solidarioak krisialdiari ematen dizkion irtenbideak". Kolonbia. [Informazio+](#)

### Irailak 29-30

International Workshop on Accounting for Cooperatives. Valentzia. [Informazio+](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara eta mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipini